

Sei pilotari Gipuzkoako finalerara

Zumarragan eta Getarian dira etzi ▶ 6



Tolosako Gazteria sailak ekitaldi ugari prestatu ditu Gabonetarako

SAIOAK ▶ Haur Parkea Beotibarren, pailazoak, disko festa, tailerrak eta I. Gazte Astea izango dira ▶ 4



Itxaropena Urkiola Gazteria saileko zinegotzia eta Sointek-eko Sonia Ezkerra atzo aurkezpenean. I. ETXEBESTE



JON BEOBIDE

Austriatik gustura itzuli da Larrañagaren orkestra

TOLOSA ▶ Innsbruck, Salzburgo eta Vienan jo ondoren «erantzun ona» izan dute; gaur Leidorren, eskolako ikasle guztien saioa ▶ 3

LEITZA ▶

Bihar, 'Ezetz lepoa jarri' antzezlanaren emango dute zineman

Kultur Taldeak antolatu du ekitaldia; aktore oso ezagunak daude tartean ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Eraikuntzan, ibilgailuak, eskolan... laguntzak

Saharara iristen dira mundu osotik ▶ 2

IRURA ▶

Hika taldeak 'Ixa' lana eskainiko du gaur herriko Trinketean

Gazte eta helduei zuzendutako obra da; sarrera doan izango da ▶ 5



**HARAGI
BIOLOGIKOAREN
DASTAKETA**

BIHAR
ostirala
18:00etatik
20:00etara

SARRERA LIBRE

Nafarroa etorbidea, 15
TOLOSA

Larunbatean,
Gabonetako Azoka berezian ere
zuekin izango gara

www.biologicogorrotxategi.com

SAHARA (IV) ▶



Askotariko laguntzak heldzen dira Saharara

Mundu osotik eta askotarikoak dira iristen diren laguntzak: eraikuntzak berritzen, ibilgailuak, eskola materialak...



Aaiungo tailerra. Mugarik Gabeko Nafarroako Tekniko eta Langileen Elkartearen proiektua. I.TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS/
DCHERA (SAHARA)

Sahararrak Tindoufeko basamortura heldu zirenean, harea besterik ez zuten aurkitu bertan. Horrela, hasierako urteak bereziki zailak izan ziren, eta botikarik eta janaririk ez zegoenez haurren heriotza-tasa oso altua zen.

Higiene mailan aurrerapen handia egin zen eta izurritarik ez zen gertatu Saharako herritarren artean, eta haurren heriotza-tasa altua kontrolatu ahal izan zuten pixkanaka.

Saharako herriak bizirik irauteko eta borrokatzen jarraitzeko borondate sendoa agertu du beti, eta horri esker tailerrak, baratzeak, ospitaleak eta eskolak egin ahal izan dira, eta antolatutako herria izanda, gatazkari irtenbide ona emateko urte luzeegietako itxaronaldiari eutsi dio.

30 urte igaro dira eta hasieran eraikitako eskolak, ospita-



TSST autobusa. Tolosatik Sahararaino eramatea lortu zuten eta etekin handia ateratzen ari dira Saharako herritarrek. HITZA

leak eta gainerako eraikuntzak, denboraren poderioz zahartzatuz eta eroriz joan dira.

Eraikitzen laguntzen

Leku desberdin askotatik iristen da laguntza Saharara, eta

horiei esker zaharberritu ahal izan dira eraikuntza ugari eta baita berriak altxatu ere.

Lehenago aipatu dugun bezala, Tolosaldea Sahararekin elkarteak martxan jarri zuten urte honetako apirillean hezkuntza proiektua eta horren bi-

dez zaharberritu ahal izan dira eta izango dira Aaiun probintziako zazpi eskolak. Hauek oso hondaturik zeuden, urte asko igaro baitira eraiki zirenetik eta uholdeak ere jasan dituztelako eta berehalako berrikuntza baten premia begibistakoa zen.

Hezkuntza proiektu honen berri izateko gonbidatu zituen Tolosako elkarteak Tolosako zinegotzia, ikastolako ordezkaria eta HITZAKO kazetaria Saharara. Eta bisita honetan igarotako egunetan, hiru ordezkariak eskolak berritze lanetan ari zirela ikusteaz gain, beste hainbat laguntza eta proiektu ere ikusi ahal izan zituzten.

Proiektu desberdinak

Tindouf-eko aireportura iritsi bezain laster, Tolosatik Donostiara joan ohi den autobus berde bat zegoen zain. Izan ere, TSST enpresak Donostiako elkarteari eman zion sahararreko emateko. Tolosako elkarteak egin zuen gestioa eta euren begieztatuak ahal izan zuten egoera onean iritsi zela. Elkarteak bidalitako eskolako materiala zuten 90 pakete onik iritsi zirela ere jakin zuten.

Bost egun hauetan, Eusko Jaurilaritzak eramandako kamioi ugari ikusi ahal izan dituzte desertuan barrera eta orain egun gutxi bidalitako 4x4 ibilgailuetako batean ibiltzeko aukera ere izan zuten.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak parte hartutako proiektuak ere ikusi zituzten; horren adibide da ospitalea berritzeko lanetan laguntza eman zutela nafarrek.

Aaiungo tailerra ere ikusi ahal izan zuten; autoak eta kamioiak erreparatzeko eraiki zen, eta Mugarik Gabeko Nafarroako Tekniko eta Langileen Elkarteak eta Nafarroako hainbat udalek eta erakundeak lagundu zuten eraikitzen.

Beraz, laguntzak iristen dira eta uste baino jende gehiago egoten da horien atzean.

Bihar. Bisitan joandakoen iritziak eta esperientziak.

OREXA ▶

Izengabeak erakusketa gaurtik ikusgai

Izengabeak izeneko pintura erakusketa izango da ikusgai gaur hasi eta abenduaren 24a bitarte Orexako tabernan 12:00etatik 23:00ak arte. Bestalde, taberna itxita izango da abenduaren 24, 25, 31 eta urtarrilaren 1ean.

GAZTELU ▶

Ardi jatea eta Petti bakarlarria gaur Kontzejun

Ohikoa den bezala, ardi jate afaria egingo da gaur 20:30ean Gazteluko Kontzeju tabernan. Afariaren ostean Petti bakarlarria beratarraren kontzertua izango da. Afari-rako izen ematea Kontzejun edo udaletxean egingo da.

TOLOSA ▶

Laskorain Ikastolako ikasle ohien bideoa gaur

Laskorain Ikastolako ikasle ohien afarian eman zuten bideoa eskaniko dute gaur 20:30ean Tolosako Kultur Etxean, iritzi gehiagorekin.

TOLOSA ▶

Pasabanek Nanga Parbat igo nahi du ekainean

Atzo eman zuenez, Edurne Pasaban mendizale tolosarra Nanga Parbat mendia (Karakorum, 8.125 metro) igotzen saiatuko da ekainean. K-2an jasandako izozdurak gainditzen ari da oraindik, baina elurretan jada proba egin duela dio, «arazorik gabe», eta «gogotsu» dago erronka berriaren aurrean.

hilberriak ▶

+

Hilario Uzcudun Cortajarena

jauna

Herenegun hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere animaren zuzendaria: Imanol Uranga; anai-arrebak: Rosario (+), Jose Otaegi (+), Rufina Yarla (Javierren alarguna), Juanita (+), Jose Elizaran (+), Juan Manuel, Kontxi eta Gregorio Zaldibia, Clara (+) eta Jose M. Aiestaran (+); Martinez sendia, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko SEIETAN, CORPUS CHRISTI parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Sarola azipko baserria (Usabal auzoa)
oharra ▶ Gorputz Belta Tolosako Funeraria Vascongoda Beilategian dago,
gaur ostirala 10:30ak arte.

TOLOSAN, 2004ko abenduaren 17an

+

Hilario Uzcudun Cortajarena

jauna

Emendek elkarteko bazkideak

TOLOSAN, 2004ko abenduaren 17a

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

MUSIKA ▶



Vienako kontzertuaren ondoren, Schönbrunn jauregiko sarreran, orkestrako kide guztiak. JON BEOBIDE

Austriatik bueltan

Insbruck, Salzburgo eta Vienako hirietan jo ondoren, etxean dira berriro Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako kideak

INIGO ASENSIO

Bederatzi egunetan zehar austriar lurretan ibili ondoren, etxera itzuli dira Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako partaideak. Feldkrich, Innsbruck, Salzburgo eta Viena-ko hiriez gain, Montecarlo eta Niza ere bisitatu dituzte etxerako bidean.

Abenduaren 3an abiatu ziren Europa erdialdeko herrialdera eta Feldkrich-en lehen gaua pasa ondoren dena prest utzi zuten zetozen egunetako kontzertuetarako. Lehen Innsbruck-en izan zen,

Alpeen bihotzean dagoen hiri austriarreko historia museo bati sarrera ematen zion plaza batean. Lehen hiri honetan topatu zuten bira osoko etsai nagusia; hotza. Hain zuzen ere lehen kontzertu honetan egin behar izan zuten aurre temperatura baxuenei. Bertako tenperaturetara egokitzeko ia astirik izan gabe zero azpiko hiruzpalau gradu-rekin jo behar izan zuten tolosarrean.

«Baldintza horietan ez dago ondo jotzerik, alde batetik instrumentuek ez dutelako behar bezala erantzuten eta bestetik

behatzeko ere ez dutelako sentikortasun berdina; gogortu egiten dira eta horrela zaila da oso soinu-jolearentzat ohituta dagoen moduan jotzea. Hala ere maila ona erakutsi dugu kontzertu guztietan eta pozik gaude horrexegatik, zailtasunak gainditzeko gai izan gare-lako» dio Isidro Larrañagak.

Innsbruck utzi eta Salzburgo-ra jo zuten tolosarrean, Mozart maisuaren jaioterriara hain zuzen ere. Mozart handiaren etxean musikaren inguruan biratzen du guztiak eta Akordeoi Orkestra tolosarra bertan aritu zen, jendez gai-

nezkako kale estu batzuetan ahal zuten moduan kokatuz, musikaren alderdirik arlotean dastatzeko aukera izanik. Larrañagaren hitzetan «tenperatura baxuekin egin genuen topo berriz ere baina hala ere esperientzia bikaina izan zen guretzat, jendea kalean metro batera sentitzea oso berezia delako eta gure produktua onespina izaten ari zela ikusi genuelako» Kontzertu haren ostean, oraindik amaitu gabe zegoen lanaren lehen fruituak jasotzen hasi ziren, 2006ean Salzburgon ospatuko den akordeoi jaialdi batean parte hartzeko gonbidatu baitzituzten soinu-jole tolosarrak. «Guretzat garrantzitsua izan zen oso, ez gonbidapena jaso izana hutsagatik, horrek, gure lana gustoko zutela erakusten zuelako baiziki».

Azken kontzertua Viena izan zen, Austriar hiriburuan, garai batean Sisi emperatrizea bizi izan zen jauregian, Schönbrunn jauregian alegia. «Ingurune zoragarri batean jo genuen. Jauregiaren lorategietan Eguberrietako merkatu ikusgarria zegoen antolatuta eta bertako musika programaren barnean aritu ginen. Ordu-rako tenperaturetara egokitu-ta, gure lanaz benetan gozatzeko aukera izan genuen», zioten orkestrako kideek beren abenturatik bueltan. Puntu honetara iritsirik eta kontzertu guztiak eskainita zeudela, tentsioa galdu eta bertako kulturaren murgiltzeko aukera izan zuten gure soinu-joleek. Vienako txoko guztiak ezagutu ondoren, Graz herria bisitatu zuten, honen ondoren Monte-carlon (Monako) egin zuten geldialdia, eta etxera itzuli baina lehen, Niza (Frantzia) ezagutzeko aukera ere izan zuten.

Balorazio baikorra

Handik itzuli eta hausnarketa egin ondoren, Isidro Larrañagak poztasun nabarmena erakusten zuen. «Hara joan baino lehen bagenekien inoiz egin genuen irteera garrantzitsua izateaz gain, Europara lehiaketatik kanpo gindoazen lehen aldian zela. Horrek erantzunik handia suposatzen zuen, baina orain lasai gaude, eman behar genuen maila eman genuelako. Salzburgo kontzertuaren ostean 2006an egingo den akordeoi jaialdi bateko antolatzaile bat etorri zen, gure kontzertua entzun zuela eta jaialdian egoteko gonbidatzen gintuela esanez. Hori da baloraketa egiteko irizpiderik objektiboena, produktu bat aurkeztu eta bertako merkatuak erantzun egin duela ikusteak». Bertan Eguberriak izugarri bizitu eta sentitzen direla dio Larrañagak eta beraiek eguberri giro hori musikaz jantzi dutela. «Hango jendeak kalean egiten du bizitza, eguberrietako merkatuetara hurbildu eta bertako ekin-tzetan parte hartuz. Guk kultura horren barnean gure musikaz girotu ditugu jendearen bilkura-leku horiek, esperientzia polita eta ezberdina izan da».

Etorkizunaz galdetzean orkestrako zuzendariak ez du helburu argirik. «Oraintxe, gaur gauean leidor zineman antolatuko dugun Eguberrietako jaialdiarekin hari gara lanean, ondoren atsedenerako tarte bat hartu beharko dugu gertatu den honetaz guztiaz gozatu ahal izateko eta eguberri-ostean aurrera begira jarriko gara. Proiektu ezberdinak ditugu esku artean eta lanean hasi beharko dugu berandu baino lehen».

Gaur, jaialdia Leidorren

Austriako bira amaitu berri badute ere, Isidro Larrañagak bere konpromisoa eusten jarraitzen du. Aurten ere, eta dagoeneko 24 urte badira, Eguberrietako jaialdia egingo da Leidorren 19:30etik aurrera. Bertara joaten direnek Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleek eskainiko duten emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute. Trikitixa, gitarra, pianoa, akademiako ikasleek osaturiko musika taldea eta noski Akordeoi Orkestra izango dituzte entzungai. 5 urteko umeetatik hasi eta helduago direnerarte, musikari mordoak izango dira bertan. Gitarrarekin Daniel Bonikowsky, Arturo

Alvarez, Maddi Garmendia, Maialen Urretabizkaia eta Amaia Pagola ariko dira, azken honek Silvio Rodriguezen *Ojala* abestuko duelarik. Pianoan Sara Apalategi, Maddalen Diaz eta Ander Urien ariko dira, eta hauez gain trikitilari eta soinu-jole ugari emango diote giroa beste urte batez kontzertuari. Horrez gain ezustekoren bat ere izango da urtero bezala musikaz gainezkako gau bat behar den bezala borobiltzeko eta amaitzeko, Austriar erakutsi duten mailaz gozatu nahi dutenentzat, Orkestrak pieza pare bat joko du, ohiko Eguberrietako abestiz gain. ◀

GIZARTEA ▶

Zer egin daiteke Gabonetan?

Tolosako Udaleko Gazteria sailak askotariko ekitaldiak antolatu ditu egunotarako

IRATXE ETXEBESTE

Eskualdeko haurrek eta gaztetxoek ez dute aitzakiarik datarren Gabonetako oporraldian aspertuta daudela esateko. Izan ere, Tolosako Udaleko Gazteria sailak askotariko ekitaldiak antolatu ditu haiekin pentsatuta, eta datorren astean hasita hainbat eta hainbat ekitaldi egiteko aukera izango dute txikienek eta gaztetxoek ordu eta gune ezberdinetan. Etxean geratzeko arrazoirik ez dute, beraz.

Aurten, lehendabizikoz, Beotibar pilotalekuan jarriko duten Gabonetako Haur Parkea da Eguberrietako oporraldian zabalik izango denetako bat. Tolosako Sointek enpresak kudeatuko du Gazteria sailarekin elkarlanean, eta bertako ordezkari Sonia Ezkerra adierazitakoaren arabera, orain arte Ferialekuan egiten zen parkearen ezberdina izango da aurtengoa. «Barraka tradizionalen lekuan, ekintza didaktikoagoak eskainiko dizkiegu haurrei eta gaztetxoei, baina, batez ere, bertara hurbiltzen den jendeari atentzio ona ematen ahaleginduko gara».

Kafetegia, haurtzaindegia, jantzigia, haur jaioberriak aldatzeko lekua... gune ezberdinak jarriko dituzte antolatzaileek pilotalekuan, «helburua haurrek ondo pasatzea bada ere, gainerakoak ere gustura eta eroso sentitzea nahi dugulako». Gainera, bertan lanean ariko diren pertsona guztiak kualifikatuak eta euskaldunak izango direla iragarri du Ezkerrak: begiraleak, hezitzaileak,



Udaleko Gazteria zinegotzi Ibaropena Urkiola eta Sointek enpresako ordezkari Sonia Ezkerra, atzo, ekitaldiak aurkezten. I. ETXEBESTE

sukaldariak, tabernariak... profesionalak eta eskarmentu handikoak izango dira, hortaz.

Gaztelu puzgarriak eta txikienezko ludoteka bezalako ekintzak egunero egin ahal izango dituzte haurrek eta gaztetxoek Gabonetako Haur Parkean, baina bestelako ekitaldiak ere izango dira: tailerrak, ipuin kontaketak, haurrentzako herri kirolak, disko festa... Antolatzaileek esan dutenez, ekintza horiek egiten ari diren bitartean haurrak begiraleen zaintzapean izango dira uneoro, eta lehiaketa eta txapelketa ezberdinetan ez dute lehiakortasuna bultzatuko. Eszenatokian ekitaldiren bat dagoen bakoitzean puzgarriak eta itzali egingo dituzte, bestalde, haurrek eta gaztetxoek, guztiek batera, emanaldi horiek ikus ditzaten.

Hilaren 24a eta 31 egun ga-

rrantzitsuak izango dira jolasparkean. Gabon gauean Olenzero gaua ospatuko dute parkera hurbiltzen direnek, eta Urte Zaharrea 12 kanpaia joko dituzte, besteak beste. Bi egun horietan lehenago itxiko dute parkea, gainera: 18:00etarako, hain zuzen ere. Gabonetako Haur Parkeko ekitaldien osagarri gisa, Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoaren emanaldia izango da hilaren 31n Leidor antzokian 18:00etan; sarrerak salgai dira Kultur Etxean 4 eurotan. Gabonetako Haur Parkean joan nahi dutenek 3 euro ordaindu beharko dituzte egun eta haur bakoitzeko; gurasoentzat eta haur jaioberrientzat, berriz, doakoa izango da sarrera.

I. Gazte Astea, Topagunean

Gazte Topaguneko lokalean —Kultur Etxean, azpialdean— ere hamaika ekitaldi izango dira Gabonetan 13 eta 17 urte bitartekoentzat. Izan ere, hilaren 27tik 30era Gazte Astea ospatuko dute. Hilaren 27an, astelehena, ping-pong txapelketa izango da Kultur Etxean arra-

tsaldeko bostetatik aurrera, eta jarraian merienda izango dute gaztetxoek. Asteartean, hilak 28, futbola 3X3 antolatu dute 10:00etan Pakon, eta arratsaldean, 17:00etan, *funky hip-hop* tailerra izango da Kultur Etxean. Asteazkenean, hilak 29, *skate* erakusketa eta txapelketa izango da 17:00etan Pakon, eta jarraian hockey-a. Eta azkenik, hilaren 30ean, ostegunez, Gabonetako opari tailerra egiteko aukera izango dute gaztetxoek 17:00etatik aurrera Kultur Etxean.

Gazte Asteko ekitaldiren baitan parte hartu nahi izatera, izena eman behar dute gaztetxoek Gazte Topaguneak Kultur Etxean duen egoitzan asteburuan, eta ez dute trukean deus ordaindu beharko. Besteetik, Gazte Topaguneak berak antolatutako Pegatina Lehiaketako lanak aurkezteko epea amaituta, sari banaketa egingo dute etzi, hilak 19, arratsaldean, 18:00ak aldera. Pegatina lehiaketako irabazleari diploma eta erosketa bale bat emango diote antolatzaileek.

Gabonetarako haurrentzako eta gaztetxoentzako eskaintza zabala egin du, ikusten denez, Tolosako Udaleko Gazteria sailak, eta helburu bera mantendu nahi dute datorren urterako. Besteak beste, haur antzerki saioak izango dira urtarriletik maiatzetako larunbatetan: urtarrilaren 15ean Gari, Montxo, Jose Lontxo, Txan magoa eta Elvi sabeliztuna; 22an *Xurdirin kobazuloan galdurik* ikuskizuna; otsailaren 26ean *Xomorroak* antzerki musikatua; martxoaren 12an Pirritx eta Porrotx; apirilaren 16an Hikaren *Groau!* eta maiatzaren 14ean *Misterioa gazteluan* lanak eskainiko dituzte. Ikuskizun horiek guztiak 16:30etik aurrera izango dira adierazitako egunetan Leidor zinema antzokian. Bada non aukeratu, ezta?

HAUR PARKEA ▶

Gabonetako Haur Parkea hilaren 21etik urtarrilaren 2ra izango da zabalik Beotibar pilotalekuan. Ekitaldi ezberdinak izango dira egunero, eta, ekintzetako batzuk finkoak izango dira: gaztelu puzgarriak eta txikienezko ludoteka, kasu. Hilaren 21etik 23ra arratsaldean izango dira ekintza finkoak, eta hilaren 24etik urtarrilaren 2ra goizez eta arratsaldean. Horiez gain, ekintza hauek izango dira:

HILAK 21, ASTEARTEA

17:00. Herri kirolak.

HILAK 22, ASTEAZKENA

17:00. Marrazki lehiaketa.

HILAK 23, OSTEGUNA

17:00. Euskaraokea.

HILAK 24, OSTIRALA

Arratsaldean. Olentzero gaua. 16:30. Ipuin kontalaria.

HILAK 26, IGANDEA

17:00. Txotxongilo tailerra. 22:00. Gauerdira bitarte, Diskotop, alkoholik gabeko disko festa gaztetxoentzat.

HILAK 27, ASTELEHENA

17:00. Mozorro festa.

HILAK 28, ASTEARTEA

17:00. Sukaldaritza tailerra.

HILAK 29, ASTEAZKENA

17:00. Herri kirolak.

HILAK 30, OSTEGUNA

17:00. Euskaraokea.

HILAK 31, OSTIRALA

16:30. *Xurdirin ipotxen munduan* disko aurkezpena.

URTARRILAK 2, LARUNBATA

Arratsaldean. Birziklatzea. 17:00. Sum magoa. 22:00. Diskotop, alkoholik gabeko disko festa.

Orduetgia.

Hilaren 21etik 23ra. 17:00etatik 20:00etara. Hilaren 24etik urtarrilaren 2ra. 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 20:00etara. Hilaren 24ean eta 31ean. 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara.



KIMETZ MUTILENTZAT
GAZTE ARROPA eta NESKENTZAT
ARROPA eta OSAGAIA ETAN
ESKAINITZA
HANDIA
Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

TOLOSARIK eta TOLOSA GASAK
energiatzat betetako egutegi bat oparitutako dizute.

Tolosar guztiak gure herrian inbertitu duten energia, gertu eta dituzte eta Tolosa herriaren indurien sartu nahi dugu. Zatoz gure bulegoetara eta har ezazu zure egutegia.

BUKATU ARTE

TOLOSARIK
Pablo Gonzalez, 34 beheko

TOLOSASAK
Anastropia, 18 beheko

ASTEASU ▶ KIROLA

Pilota elkarten finala bihar frontoian

Bihar, 18:00etan hasita, Gipuzkoako pilota elkarten finala jokatuko da, lehen mailako afizonatuetan. 3. eta 4. postuko partidari Muguruza eta Gutierrez bergararrak, Amezketako Zazpi Iturriren (Baez anaiak) aurka. Finalean, Añorga (Erroizenea eta Argoite), Usurbilgo Andatzperen (Huizi eta Arruti) aurka.

ASTEASU ▶

Mendiari buruzko filma gaur Kultur Etxean

X. Mendi Astearen baitan, gaur, 19:30ean *Tocando el vacío* filma ikusiko da Kultur Etxean. Peruko Andean kokatzen den biziraupen historia kontatuko da. Asteburuan, izena emandakoek Piriñotara doaz, ekintza ezberdinak burutzera: mendia, iraupen eta pistako eskia...

ADUNA ▶ GIZARTEA

Bikote harremani buruzko hitzaldia

Bikote harremanak: ezkontza, izatezko bikoteak eta elkarrekin bizitzeko beste egoerak izenburupean hitzaldia izango da gaur, 20:00etan Kultur Aretoa. Santi Goñi, abokatua eta Zuzenbide Zibileko irakaslea Euskal herriko Unibertsitatean, izango da hizlaria. Aipatu behar da, Adunako udalbatzak aho batez onartu berri duela izatezko udal erregistroa eratzea.

IRURA ▶

Txistor jatea Zaharren Biltokian asteartean

Datorren asteartean, hilaren 21a, Santo Tomas eguna da eta horren kontura Zaharren Biltokian txistor jatea egingo da. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Behar-Zanako saskien zozketa hasiko da

Igandean zozketatzen da Behar-Zanako lehenengo saski txikia. Hauek dira azken egunak boletoak erosteko. Gaur arratsaldean jazoko dira soberan dauden boletoak komertzioetatik. Asteburuan erosteko Behar-Zana elkartera jo behar da, batez ere arratsaldetan, edo saskien erakustokiaren ondoan (Kale Nagusian).

VILLABONA ▶

Santo Tomas Txikiko ekitaldiak bihar Gaztetxean

Santo Tomas Txiki ospatuko dute bihar Villabonako Gaztetxean. 16:00etan, eztabaida izango da, *Villabonako gaztedia gaur eta bihar* gaiari buruz. 18:00etan, txistor jatea sagardoarekin eta txalapartari eta trikitikariekin. 21:00etan kontzertua, Homeless eta Dubet taldeekin.

IRURA ▶ EGUERRIETAKO EGITARAU

Hika antzerki taldeak 'Ixa' antzezlanaren eskainiko du gaur

Trinketean izango da ikuskizuna; sarrera doan izango da; gazte eta helduei zuzendutako obra taularatuko dute

IMANOL GARCIA

Izurako Udalak prestatutako Eguberrietako egitarauaren baitan, gaur gauean, 22:30ean, Ixa obra taularatuko dute Hika taldekoek Trinketean. Gazte eta helduei zuzendutako antzezlanaren sarrera doan izango da Aktore bakarreko antzezlanaren sarrera doan izango da Aktore bakarreko antzezlanaren sarrera doan izango da. Ixa izena du obraren ustakebako protagonistak. Agindu diotelako joan da antzokira eta han konturatuko da, antzerkiko jendeak, beste behingoz ez duela agindutako lana ordaintzeko asmorik. Horrek erabat sutuko du Ixa eta antzeztokira igoko da bere historia kontatzeko.

Mikel Laskurainek antzeztan duen pertsonaia «gaur egungo gizartearen hain garrantzitsua den lanbide berezia du», azaltzen dute Hika taldeak eta ofizio hori izatera iristeko pasa dituen guztiak kontatzen ditu.

Antzezlanaren egileak Arantxa Iturbe eta Agurtzane In-



Mikel Laskurainek antzeztan du Ixa izeneko pertsonaia. HITZA

txarraga dira eta azken honek egiten ditu zuzendaria lanak.

Babarrun jatea

Bestalde, igandean egingo den babarrun jaterako txartelak

erosteko azken eguna da gaur. Bazkaria Gazte Alaiak elkartearen egingo da. Txartelak salgai daude zahar etxean eta Amets estankoa. Helduek 15 euro eta 14 urtetik beherakoek 10 euro ordaindu behar dituzte.



Villabona - Kultura

— MUSIKA —

'PATXI SAIZ'

'Galdetzen'

Abenduak 17 Ostirala • Gaueko 22:30ean
GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal Kantagintza

OGI-GOXO

OKINDEGIA eta GOZOTEGIA

kale nagusia, 26 • 20150 BILLABONA • Tel. 943 69 32 94

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua:
68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion Klinika 67 57 99 -
67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930**GARRAIOAK**

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK**Gaur.** Azpiroz, M.L. Amaro

auzoa, 9 (Tolosa). 943 675118.

Larraia, M.I. Elbarren 95

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA**Publizitatea.** 661 67 88 18.tolosaldean_publi@tolosaldeko
hitza.info**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.villabona-aiztondo@tolosaldeko
hitza.info**Anoetaldea.** 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

ESKERTZA ▶

JOAQUINA GARMENDIA GARMENDIA ande-
re hil berriaren sendiden partetik, eskerrak samin
agurra bidali zenuten eta hiletia elizkizunetara eto-
rri zineten guztiok.

Bailarrain, 2004ko abenduaren 17a

GIPUZKOAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK ▶

Eskualdeko bi taldetako ordezkariak, finalean

Zumarraga eta Getariako pilotalekueetan izango dira etzi finaleko partidak

OLAIA ESKITXABEL

Gipuzkoako Kluben arteko Pi-
lota Txapelketako finalak etzi,
igandea, jokatuko dira.Eskualdeko taldeetako hain-
bat pilotarik lortu dute finale-
rako txartela; sei ordezkari,
hain zuzen ere. Eskualdeko pi-
lotariak Getariako eta Zuma-
rragako pilotalekueetan jokatuko
dituzte finalak.Amezketako Zazpi-Iturri tal-
detik, Ibai Ropon eta Jokin
Leunda pilotariak kadeteetan
binakako finala jokatuko dute
Getarian Hernani taldeko pi-
lotarien aurka. Pilotaleku berean
jokatuko dute, Bidegoiango
Aurrera-Saiatz taldeko Ugaitz
Renobalesek eta Aimar Gala-
rragak; Murumendi taldeko
Amondarain eta Esnaola izan-
go dituzte aurkari. Finaleko
partidak 10:30ean hasiko dira.Banaka eskualdeko beste bi
pilotari ikusteko aukera izango
dute etzi Zumarragako pilota-
lekura bertaraten direnek.
Aurrera-Saiatz taldekoak dira
bi pilotari horiek; kadeteetan
Xabier Telletxeak, Garaialde
urnietarraren aurka jokatuko
du eta, jubeniletan, Koldo Gala-
rraga bidaniarrak Izeta ordi-
ziarraren aurkako neurketa jo-
katuko du. Zumarragako parti-
dak ere 10:30etik aurrera
izango dira.

Orain dela bi urte, bikote beraren aurka

Hernani taldeko pilotarien
aurka neurtuko dira etziko fi-
nalean Ibai Ropon anoetarra
eta Jokin Leunda zizurkilda-
rra. Kadeteetan binakako fina-
la jokatuko dute. Orain dela bi
urte, infantil mailan, bikote be-
raren aurka jokatuz zuten; ga-
raipena lortu zuten: «Igande-
an ere orain dela bi urte bezal,
garaipena lortu nahiko genu-
ke», azaldu dute Zazpi-Iturriko
pilotariak. Hala ere, partida
gogorra izango dela aurrikus-
ten dute. ◀

Ibai Ropon eta Jokin Leunda, Zazpi-Iturriko pilotariak. O.ESKITXABEL

Partida gogorra eta pilotaleku bizia

Amundarain eta Esnaola (Bea-
sain) bikotearen aurka joka-
tuk dute Renobalesek eta Ga-
larragak Getarian. Gipuzkoako
Txapelketako ligaxkatik eza-
gutzen dute elkar. Partida har-
tan Galarraga min hartuta ze-
goen eta Pastrianeekin jokatuz
zuen Renobalesek. 22-16 ira-
bazi zuten Aurrera Saiatzeko-
ek. Igandeko partida «gogo-
rra» izango dela azaldu dute;
Getariako pilotalekua «oso bi-
zia» dela ere azaldu dute. ◀

Ugaitz Renobales eta Aimar Galarraga. O.ESKITXABEL

Urduri jartzeko asmorik ez

Indartsu ikusten du bere bu-
rria Koldo Galarragak (Aurre-
ra Saiatz). Izetaren aurka ariko
da Zumarragako pilotalekuan:
«Pilotaleku ona dela esan di-
date», azaldu du. Lehenengo
finala izan arren, urduri jar-
tzeko asmorik ez duela azpi-
marratu du Galarragak. Izeta
ordiziarraren izango du aurkari:
«Orain arteko partidetan
erraz irabazi diot eta garaipe-
nerako esperantza badub». ◀

Koldo Galarraga. O.ESKITXABEL

Aurkari ezaguna, finalean

Kadeteetan banaka, Garaial-
deren aurka jokatuko du fina-
la etzi Aurrera-Saiatz taldeko
Xabier Telletxeak. Ongi ezagu-
tzeko du aurkaria 15 urteko al-
biziturdarrak; izan ere, bitan
jokatuko du Garaialderen aurka:
«Nahiko erraz irabazi diot»,
gaineratu du. Gipuzkoako Kl-
uben arteko Txapelketako lehe-
nengo finala du Telletxeak eta
«irabazteko esperantzarekin»
dagoela jakinarazi du. ◀

Xabier Telletxea. O.ESKITXABEL

iragarki laburrak ▶**SALGAI****Altzariak.** Garbigailu berria eta
sukalde bitrozeramika laberekin
salgai. 639 567159.**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa osoa
salgai. Argibideetarako deitu: 943674806 / 943 117738 telefono
zenbakietara.**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai
Tolosako Alde Zaharrean. 90m2koa.
Partikularra. Interesatuak deitu:
943 676214.**LANA****Zaintzalea.** Pertsona bat behar da
lau orduraz esne behi ikulu batean
lanean aritzeko. Beharrezkoa da autoa
eta esperientzia. Deitu, 665 733356.
Etxeko lanak. Emakume bat beharda etxeko lanak egiteko eta haurrak
zaintzeko, Tolosan. Goizetan deitu:
661 212837.
Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria
behar da asteburutan lan egiteko.
943 691933.

LEITZA ▶ KULTURA

'Ezetz lepoa jarri' apostu eginez datoz bihar antzerkikoak

Leitzako Kultur Taldearen eskutik, 19:00etatik aurrera eta zinema aretoan ikusgai izanen da antzerki obra hau



Biharko antzerkiaren iragarki-kartelak berak ere, lan horren komedia izaera ederki asko adierazten du. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar arratsalde, 19:00etatik aurrera, Leitzako zinema aretoan, sekulako antzerki obra ikusteko aukera izanen da.

Kultur Taldeak, aurtengo saiorako, *Ezetz lepoa jarri* lana aukeratu du. Obra poliziakoa eta batez ere komedia: «Irauten duen denbora guztian, ikusleak irribarra espainetan dutela egotekoa da, han sortzen diren zenbait egoera eta jokabide ze-

lebrerekin», zioten antolatzaileek. Nonbait, ilepaindegi batean erahilketa bat gertatzen omen da eta hiltzailea aurkitzen saiatuko dira ikertzaileak. Horretarako «ikusleen parte-hartzea ere, nahi dutenena, beharko dute hango korapiloa argitu eta eskatzeko», argitu dute.

Eta noski, antzerkia hala ateratzen da, horretan bertan parte hartuko duten aktoreak ere nolanhakoak ez direlako: Kon-

txu Odrozola, Joxe Ramon So-roiz, Joseba Apaolaza, Ainhoa Aierbe, Asier Hormaza eta Kiko Jauregik osatzen dute erreparatoa. Guztiak ere ezagunak bezain eskarmentu handikoak dira eta beren aktore-aktorea ibilbidea hagitz luze eta oparoa da, telebistaz gain, antzerkian egiten duten lanagatik. Hori agerian geldituko da, publikoari zuzenean eta bapatean erantzun beharra etorriko baitzaie.

Obra hau antzeztuko duen Kanpingags SL taldeko kideek HITZARI aipatu diotenez, eszenografia bera ere, oso ikusgarria omen da, bestalde. «Asko zaindu dugu atal hori ere eta kokalekuak, ilepaindegi benetakoa dirudi. Osagai guztiak ditu», zioten.

Beraz, osagai hauek guztiak dituen antzerki-lana ikustera joatea besterik ez dago bihar-koan, eta han bertan egiaztatu eta gozatu.

Leitzako Kultur Taldeak urteak daramatza, gutxienez urtean behin, mota honetako antzerki-lanak herrira ekartzen. *Ama begira zazu!* hartatik hasi eta geroztik, karteleran dagoen eta obrarik hoberentsuenak ekartzea lortu dute urte urte. Aurtengoan ere bai.

Kontzertua gaur

Baina biharkoa ez da asteburuko eskaintza bakarra. Izan ere gaur gauean bertan, Torrea tabernan kontzertua eskainiko baitu. Txantreako *Banda Batxoki* taldeak, 24:00etatik aurrera, rock musika gogoko duten guztientzat.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Astibiaren askatasuna eskatuz, sinadurak jasoz

Herritar talde batek jarri du abian ekimena

J. ASTIBIA

Igor Astibiaren askatasuna eskatuz, sinadura-bilketa egiten hasi da herritar talde bat, norbanakoena ez ezik, herriko talde eragileen atxekimena biltzeko asmoa ere agertu dutelarik.

Hitzak eskuratu duen atxekimen-agirian, lehengo azaroaren 16an Igor Astibia atxilotu zuten geroztik, berak jazo-takoaren berri ematen da eta egungo egoera zein den ere argitzen da, «inolako azalpenik gabe» atxilotu, inkomunikazio egoeran eduki «horrek dakartzen ondorio guztiekin: mehatxuak, jipoiak, beldurra...», ondoren «epailearen aurrera atera eta zuzenean

kartzelara eramateko agindua» eman zutela adieraziz, eta gaztea, inolako frogarik eta oinarririk gabe, giltzapean sartu zutela argituz «hainbat eta hainbat euskal herritar dauzkaten bezalaxe», erantsiz.

«Injustizia hau salatu» eta «lehenbailehen askatu eta etxean izan dadin», sinadurak jasotzen ari dira, beraz, besteak beste herriko liburudenda, taberna eta eskuz eskura ere.

Bestalde Igor Astibiari eskutitzak bidali nahi izanez gero, bere helbidea ere eman dute ezagutzera: Navalcarnero Zentro Penitentiarioa, Madrid IV, 7. moduloa; 195. posta kutxatila, 28.600 Navalcarnero (Madrid), (Espainia).



Txan magoaren jokoekin liluratutako ikusleak

LEITZA ▶ Asteazken iluntzean, Txan magoa etorri zen Leitzako zinemara, eta han bildu ziren ehun bat ikusle tiki eta handiekin jostaketan ibili zen: esku-joko, asmakizun, dantza... eta zenbait desagerketa tarteko, aho-zabalik jarraitu zuten magiajoko ikuskizuna. J. ASTIBIA

hitza **txokoa** lagun

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'



KAPRITXO

Landabeikoa z/g •LEITZA
Tel.: 948 51 09 94

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'EL LOBO' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

ARANTXA LANDA ARENAL HITZAren harpidedun laguntzaile ibartarra.

▶ **KAPRITXOK** oparitutako arropa eta osagaien irabazle den harpidedun laguntzailea:

MARIA ANGELES SAIZAR (BERASTEGI)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 17a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesle, Adura, Abotzu, Alege, Alkiza, Alizo, Amerleña, Aneta, Bakarran, Belantza, Berastegi, Etxain, Herrialde, Ibarra, Inza, Lantzi, Luchuri, Luartea, Omeñaca, Ome, Tolosa, Villatorra, Zuzaldi

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurritza. Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzena

11

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe:

gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:

gaur: ez / bihar: ez

943

30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Ibarra. *Titirinahaste*, Goizeko Izarra taldearekin. 22:00etan, Gaztetxean. Kultur Astean.

DEIALDIK

Altzo. *Altzoko Handia* bertso-antzerkia Imaz Bertsolaria eskolako ikasleekin, 18:30etan. 22:00etan, bertso zahar eta berri musikatuak, Alboka taldearen eskutik. Bi ekitaldiak, Lizarbe etxepeko gelan.

Areso. *Orain herria, orain bakea* proposamenaren aurkezpena, Gorka Murilloekin, 20:00etan.

Ibarra. Ibarra Kirol Elkartearen asanblada orokorra, 21:00etan.

Tolosa. *Eskerrak zuri* aipamenak. 20:00etan, udaletxean. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

Tolosa. Laskorain Ikastolako ikasle ohien afarian eman zuten bideoa eskainiko dute, 20:30ean, Kultur Etxean.

Villabona. Odol-ematea, ambulategian, 18:30etik.

HITZALDIK

Albiztur. *Bloketik Naranjora*, Josune Bereziartu eskalatzailaren eskutik. 20:00etan, Kultur Etxean.

Zizurkil. Amaia Muruamendiaren hitzaldia jubilatuentzat. 17:00etan, Atxulondon.

KIROLAK

GAUR

Areto futbola

- ▶ Tinta Billabo-Goierrri (Nesken Liga. 20:45, Olaederra).
- ▶ Idiazabal-Laskorain (Nesken Liga. 22:15, Zelaa).
- ▶ Eraso-Laskorain (2. Maila A. 22:30, San Juan kiroldegia).

Esku pilota

(Gipuzkoako Elkarten Artekoo)



Fruta saski politenari saria

ADUNA ▶ Frutas Dioni enpresak txapelketa berezi eta koloretsua antolatu zuen atzo: fruta saski politena nor osatu saritzen zuena. Enpresak hornitzen dituen frutategietako hogeita bost langilek hartu zuten parte. Koro Rodriguez (erdian), Villabonako frutategietako irabazi zuen. Bigarrena, Elena Clavo (ezkerrean), Irungo Anaka auzokoa, eta hirugarrena, Bienve Carvajal (eskuinean), Donostiako Gros auzokoa. I. GARCIA

- ▶ Aurrera Saiaz-Altzarrak (Nagusiak. 20:00, Ibarra).
- ▶ Elordi Herrigintza-Lizardi (Jubenilak. 21:00, Ikaztegieta).
- ▶ San Esteban 1-Txapagain (Jubenilak. 20:00, Berastegi).
- ▶ San Esteban 2- Hernani 2 (Jubenilak. 20:00, Berastegi).
- ▶ Zazpitturri 2-Arexbaketa (Nagusiak. 20:00, Amezketeta).

BIHAR

Areto futbola

- ▶ Hegoalde-Kettal (E. Ohorezko Maila. 19:00, Berazubi).
- ▶ Ibarra-Salcedo (1. Maila A. 18:30, Belabieta).
- ▶ San Pedro Kenci-Laskorain (1. Maila B. 16:00, Olaizaga).
- ▶ T. Lakuntza-C. Dental Aldaz (Autonom. 18:30, Olaederra).
- ▶ Lauburu-San Juan (Jubenilen Maila. 16:00, Belabieta).
- ▶ Eskolapioak B-Eskolapioak A (Jubenilak. Neskak. Eskolap.).

Esku pilota

(Gipuzkoako Elkarten Artekoo)

- ▶ Altzatarra-Elordi Herrigintza (Kadeteak. 11:00, Altza).
- ▶ Añorga 2-Aurrera Saiaz (Nagusiak. 16:00, Añorga).

- ▶ Añorga 2-Zazpitturri 2 (Jubenilak. 16:00, Añorga).
- ▶ Behar Zana-Bergara (Nagusiak. 17:00, Amasa).
- ▶ Gure Txeru-Aurrera Saiaz (Jubenilak. 10:30, Getaria).
- ▶ Intxaurren-Zazpitturri (Jubenilak. 12:00, Intxaurren.).

Futbola

- ▶ Trinxerpe-Tolosa (Gorengoan Maila. 16:30, Don Bosco).
- ▶ Lengokoak-Tolosa B (Lurraldeko 1. Maila. 15:30, Jasonebaso).
- ▶ Tolosa-Bermeo (Jubenilen Euskal Liga. 16:30, Berazubi).
- ▶ Intxurre-Idiazabal (Jubenilen 1. Maila. 15:30, Elorri).
- ▶ Billab.-D. Eguzki (Jubenilen 1. Maila. 15:30, Arratzain).
- ▶ Tolosa-Beasain (Jubenilen 2. Maila. 17:30, Zubieta).
- ▶ Retuerto-Tolosa (Kadeteen Euskal Liga. 10:30, Barakaldo).
- ▶ Amaro-Luberri (Kadeteen 2. Maila. 10:00, Elorri).
- ▶ I. Aitzgorri-Tolosa (Kadeteen 2. Maila. 17:30, Matigoxotegi).

Futbol 7

- ▶ Lanbroa Dickens-Zibibibo D C (1. Maila A. 18:30, Hernani 1).

Saskibaloia

- ▶ Aralar Kirolak-Ind.Lagun Art. (Senior Maila. 17:00, Berazubi).

Zesta-punta

(Gipuzkoako Elkarten Artekoo)

- ▶ Beotibar-Don. Jai Alai (Finala jubenilak. 16:30, Andoain).

ETZI

Areto futbola

- ▶ Coop-Laskorain (1. Maila A. Aldiri kiroldegia).

Esku-pilota

(Gipuzkoako Elkarten Artekoo)

- ▶ Aurrera Saiaz-Urmieta (Finala kadeteak: Xabier Telletxea. 10:30, Zumarraga).
- ▶ Aurrera Saiaz-Txapagain (Finala jubenilak: Koldo Galarraga. 10:30, Zumarraga).
- ▶ Aurrera Saiaz-Murumendi

(Finala nagusiak: Ugaitz Renobales eta Aimar Galarraga. 10:30, Zumarraga).

- ▶ Aurrera Saiaz-Hernani (Finala kadeteak: Ibai Ropon eta Jokin Leunda. 10:00, Getaria).
- Getxoko Txapelketa
- ▶ Unai Aspe-Eneko Galarraga (Aurrera Saiaz) / Beitia-Irureta (Finala 22 urte azpikoetan. 11:00, Getxo).

Futbola

- ▶ Ostadar-Tolosa (Nesken Liga. 10:00, Michelin-Lasarte Ori).
- ▶ Danena-Intxurre (Lurrald. 2. Maila. 11:30, Elbarrena).
- ▶ Amaro-Lazkao (Lurrald. 2. Maila. 11:00, Elorri).

Futbol 7

- ▶ Ibarroko Gazte Asanblada-Perku taberna (1. Maila A).
- ▶ Bar Shanti Kirolak-C. Rojo P. (2. Maila A. 11:00, Beasain 2).

MUSIKA

Tolosa. DJ festa Elorri pub-aren II. urtemuga: DJ Lander (Orereta), DJ UBellamy (Nomaklimato), DJ FI (TritoneProd), DJ Nubecita (Tolosa), DJ Edmund (TritoneProd), DJ Asier (Meatalk) eta DJ Juntxi (Nomaklimato).

Tolosa. Isidro Larrañaga Musika Eskola. 19:30ean Leidorren.

Alegia. Kauta eta Keike taldeak. 23:00etan, Gaztetxean. 17. urtemuga.

ZINEMA

Tolosa. *Lobo*. 22:30ean, Leidorren.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaumartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN
Amaiar Arrospide Uzquidun
(Leaburu). Gaur urtebete. Asko maite zaitgunon partetik, muxu eder bat.



URTE ASKOAN
Ander Errazkin (Berastegi).
Gaur 7 urte. Bere guraso eta arrebaren partetik.



ZORIONAK, MIKEL!
Muxu handi bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Dolox Bengoetxea (Amezketeta).
Zorionak, amona, gaur, bihar eta etziko partetik. Muxu handi bat Haizea eta Ekhiñen partetik.

HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu

Modelo eta kolore ezberdinak neska nahiz mutilentzat

Zatoz zurearen bila!
TOLOSako eta LEITZako egoitzetara

